

### **Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Oñilaren 28'an.**

Euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazle dan Ormaetxea jauna.

I.—Batzar-aldi garai guzia Iztegiaren lanetan igaro da ta erderazko *acompañamiento* arte iritxi gera.

Beti bezela otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### **Donostian, Aldundi Jauregian, 1929'ko Garañilaren 26'an.**

Batzar ontara euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Aurtengo Schuchardt-saria Agustin Anabitarte jaunak irabazi du, bere irakurgai *Usauri* deitzen danagatik : Euskaltzaindiak erabaki du irakurgai au argitaratzea, bañan gure Euskera-ren orialdietan : oretzaz gañera, beste 500 eleski eragingo ditu ta oietatik 100 egileari emango zaizkio.

II.—Aita Intzak dio : Iztegi-lanak auferatzeko, berak deritzala, alako batzorde bat sortzea, batzorde onek Ormaetxea jaunari zuzenbide batzuek eman dezaizkion.

Asko ta luze, onetzaz itz egin da, ta azkenean erabaki da : Batzorde au iratsi dedila ta euskaltzaiñai, aldiz-aldiz biali dizazkiela 500 bat itz; abek alde

auréetik aztertu ezkeroz, batzaraldietako lana asko éreztuko da. Batzorde au osatuko dute : Azkue, Olabide ta Eguskitza jaunak.

III.—Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu : *Flexiones verbales de Oihenart*.

IV.—Bahr jaunak egindako *Baskischen Studien* itzulpena aztertzea Urkijo jaunari egotzi zitzaion. Urkijo jaunak bere lana egiten du ta Euskaltzaindiak onetsi du. Lan au Euskaltzaindiak argitaratuko du ta 100 eleski eragingo dira.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

## Donostian, Aldundi-Jauregian, 1929'ko Gara-gafilaren 27' an.

Aurêko batzaraldiko euskaltzain jaunak bildu dira eta otoitzez asi da.

I.—Iztegiko lanetan asi gera *acompasado* lenbizikotz jorik. Lan ontan jaraitu degu asti luzean : esan digute Andoaingo Alkate eta Apaizburu jaunak gurekin itz egin nai dutela ta ate ondoan zai daudela. Sartu ditezela.

II.—Alkate eta Apaizburu jaun abek esan digute : datoñen Agoñaren erdi-aldera, Andoaiñen euskal-jai batzuek egin nai dituztela aita Larámendi ango seme argi zanaren omenez, oraintxe dalako aita oñek argitaratu zuen *Eziña-egiña El Imposible vencido*-ren beñeungaren urtebetetzea. Iru gauza nai lituzteke : jai oietan Euskaltzaindia Andoaiñen izatea-euskaltzain batzuek itzaldiak beren gain artzea-ta Euskaltzaindiaren dirulaguntza.